

EUSKAL HERRIKO POLIZIAREN LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Segurtasun Sailak eskatuta egin dugu txosten hau, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz.

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2007ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea (Jarraibideak, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeke, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko).

Euskal Herriko Poliziaren Legea bosgarren aldiz aldatzeko Lege-Aurreproiektuari buruz eskatu da txostena. Lege horren xedea Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeko zenbait artikulua erreformatzea da, araudia gizartearen gaur egungo eta etorkizuneko beharrezanetara egokitzeko helburu nagusiarekin, herritarren zerbitzuan dagoen polizia komunitario eta hurbileko baten eremuan sakonduz, azken batean, herritarrei eman beharko baitie bere jokabidearen kontuak.

Beraz, xedapen orokor bat da, zer nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, lehenengo jarraibidearen 2.1. d paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik. Emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez, aldaketa funtsezkoa den neurrian, araua sustatu duen organoak, generoaren arabera eragin-txostena egin du, I. eranskinean aurreikusitako baldintzetan, eta lehenengo jarraibidearen 3 eta 4 paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Bidalitako **Eragin txostenean** Aurreproiektuaren deskribapen orokorra egiten da. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko helburuen artean daude polizia-

kidegoetan emakumea integratzen laguntzeko eragin positiboko neurriak ezartzea, hautatze-organoetan gizonen eta emakumeen arteko orekaren printzipioa bermatzea, eta testua emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan hizkuntzaren erabilera ez sexistari buruz arautuaren arabera idaztea.

Generoaren araberako Eraginaren aldeko aurreko Ebaluazioari dagokionez, Ertzaintzaren zerbitzuan kategoriatan dauden pertsonen arteko emakume eta gizonen presentziari buruzko datuak eman dira. Datu horien arabera, ondorioztatu da emakumeek ez dutela behar hainbateko presentziarik poliziaren zereginetan, eta, ezinbestean, beharrezkoa dela jardutea eta hainbat neurri hartzea. Adierazi da, orobat, txostenarekin batera prestatu diren –baina bidali ez diren– memorian eta azterlanetan diagnostiko bat egiten dela polizia-kidegoetan dauden gizonen eta emakumeen egoerari buruz. Ildo horretan, interesgarria zatekeen azterlan horiek gehitzea, emakumeek Ertzaintzan duten presentzia urriko egoera ez ezik, horren balizko zergatiak eta baldintza faktikoak ere aztertzen dituzten neurrian.

Txostenean, emakumeak kidegoan duen presentziaren eta poliziaren eginkizuna hertsatze fisikoarekin parekatzen duten gizarte-estereotipoen analisi labur bat egiten da; hori dela eta, gizartearen parte handi baten iritziz polizia-lana gizonaizkoen lana da. Arrazoi horregatik uste da polizia-zereginetan emakumeen presentzia areagotzea lagungarri izango dela esandako aurreiritzi horiek gainditzeko.

Azterketa horren ondoren, txostenak aurreikusten du eragin positiboa egongo dela Aurreproiektuan arau eta balio sozialak gainditzeko edo aldatzeko planteatzen diren helburu eta neurrietan.

Amaitzeko, txostenak dio hainbat neurri sartu direla Aurreproiektuko testuan genero-ikuspegia gehitzea sustatzeko: hautatze-prozesuetan berdintasuna bultzatzea lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko irizpide gisa, eta arauaren testua idaztean hizkuntzaren erabilera ez sexista aldezte, besteak beste.

Era berean, beste neurri batzuk hartzea ere aurreikusten da, arau-proiektuaren edukitik harago, planteatutako helburu eta neurrien eraginkortasuna handitzera zuzenduak, kanpainak bultzatzea: adibidez, emakumeek polizia-kidegoetan parte har dezaten.

Aurreproiektuaren edukiari dagokionez, balorazio positiboa egin zaie honako hauei:

- Zioen Azalpenean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea berariaz aipatzeari.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.4 artikuluko a eta b paragrafoetan adierazitako neurriak bete izanari, enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko prozesuei dagokienez¹.
Aurreproiektuan, halaber, beste neurri batzuk ere artikulatu dira, agente eta azpikomisario kategorietan txanda irekiz sartzeko prozeduretan lehentasun-irizpide batzuk aplikatzearen bitartez, Ertzaintzan emakumeak sar daitezen ahalbidetzeko.
- 59. artikuluan gehitu dira Euskal Herriko Poliziaren Legea laugarren aldiz aldatzeko Lege-Aurreproiektuan egindako gomendioak, honako hauei buruzkoak: seme-alaba edo senitartekoen zaintzagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia egoeran dauden funtzionarioek txandagatik barne-sustapenean parte hartzeko aukera izatea, eta jatorrizko kategorian zerbitzu eraginkorreko denbora gisa zenbatzea amatasun- eta aitatasun-baimenak direla medio baliatutako denboraldiak eta haurdunaldiko bajaran emandakoak. Nolanahi ere, ez legoke gaizki 59. artikulua 4. paragrafoan zerbitzu eraginkorreko denbora gisa kontuan hartzea seme-alaba eta senitartekoen zaintzagatik eta

¹**20. artikulua.**– Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.

4.– Egoki ikusten diren beste neurri batzuk ere hartu ahal diren arren, enplegu publikoko lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautatze-prozesuak erregulatzen dituzten arauak honako hauek izan behar dituzte:

a) Klausula bat, Administrazio kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumei lehentasuna ematen diena, baldin eta gaitasun bera badago eta estamentu horietan emakumeak % 40 baino gutxiago badira, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten eta sexu arrazoiengatik baztertzailak ez diren ezaugarriak baldin baditu; adibidez, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

b) Beste klausula bat, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izango dela bermatzeko.

genero-indarkeriagatik hartutako eszedentziak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legeko 89. artikuluan xedatuaren arabera.

Bestalde, gomendio hauek egiten zaizkio Aurreproiektuaren edukiari:

- Euskal Herriko Poliziaren Legea laugarren aldiz aldatzeko Lege-Aurreproiektuaren txostenean proposatu zen bezala (betiere, Gizarte Segurantzaren alorrean indarrean dagoen legediarekin bat baldin badator), zaintzagatiko eta/edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-aldiak benetan lan egindako aldiztat zenbatuak izatea, erretiro-pentsioa jasotzeko eskatzen den ohiko adina murriztu ahal izateko; horretarako, horri buruzko berariazko klausula bat sartu beharko da Aurreproiektuaren hogeita batgarren paragrafoan.
- 92. artikulua 2. paragrafoko 1 bis) idatz-zatian diziplinazko falta oso larritzat begiestea, sexu-jazarpenaz eta laneko jazarpenaz gainera, laneko jazarpen sexista edo sexuan oinarritutakoa, 4/2005 Legearen 43.2 artikuluan eskatzen denarekin bat.
- Uste dugu, 4/2005 Legearen 23. artikulua manua gauzatzeko, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu behar dela aurreproiektu honetan sortzen den Ertzaintzaren kontroleko Batzordea osatzerakoan edo berorretan parte hartzeko kideak hautatu eta izendatzerakoan. Halaber, aipatutako Batzordearen jardunean aktiboki aintzat har dadin emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeenganako indarkeriari aurre egitearen helburua, komeni da gogoan izatea aukera dagoela genero eta berdintasunaren alorreko eta/edo emakumeenganako indarkeriaren alorreko adituen aholkularitza jasotzeko. Horretarako, alor horietan prestakuntza edo esperientzia duen pertsona bat sartzea proposatzen dugu.

Azkenik, balorazio positiboa egiten zaio hizkuntzaren erabilera ez sexista egiteko ahaleginari; baina, hala izanik ere, beharrezkoa irizten diogu, gaztelaniazko testuan, genero maskulinoan soilik agertzen diren terminoak berrikusi eta egokitzeari, hala nola «funcionario/os», «los empleados públicos», «sancionado», etab., 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan adierazitako hizkuntzaren erabilera ez sexistaren mesedetan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 24a.

